

| | | |
|---|-----------------------|-------------------------|
| Irakasgaiaren izena | Kodea | Ikasturtea |
| Hizkuntza Plastiko, Bisual eta Musikala | 141207 | 2024-2025 |
| Titulazioa | Maila | Sehilekoa |
| Lehen Hezkuntzan Gradua | 1. | 2. |
| Irakasgai mota | ECTS Kredituak | Hizkuntza |
| Oinarrizko formakuntza | 6 | Euskara / Gaztelania |
| Irakaslea(k) | | |
| Pello Ulazia eta Jorge Txana | | |

Justifikazioa

Hizkuntza Plastiko, Bisual eta Musikala ikasgaiak Lehen Hezkuntzan Musika eta Plastikaren Adierazpenaren eremuan aritu ahal izateko oinarri metodologiko zein kontzeptualaren ekarpena egiten du.

Artearen balio nagusiak eta honek hezkuntzan duen garrantzia identifikatzen laguntzen du, etorkizunean profesional izango direnak sentsibilizatuz eta, aldi berean, gaur egun testuinguru anitzetan ematen diren adierazpen artistikoekiko interesa sustatuz.

Plastika, Bisual eta Musika Hizkuntzari dagozkion oinarrizko elementuen ezaugarriak ezagutzeko aukera emango du, eta baita komunikazio eta adierazpenean hizkuntza mota honek duen erabilera ere. Horrela, jasotze, ulermen eta balioztatze gaitasunak eta musika, plastika zein ikus-entzunezko baliabideen bitartez adierazpen, sormen zein komunikazio gaitasunak garatzea du helburu ikasgai honek.

Aurrebaldintzak

Ikasgai hau egin ahal izateko alde aurreko baldintzarik ez dago.

Gaitasunak

Gaitasun orokorrak

TALDE LANA

1. Maila: Lantaldeak duen zereginetan aktiboki parte hartu eta lankidetzan aritu, konfidantza, zintzotasuna eta elkarlanaren garrantzia sustatuz.

Berriazko gaitasunak

- Lantaldean arituz, arteak norbanakakoaren formakuntzan zein formakuntza kultural eta sozialean egiten duen ekarpena identifikatu, eta hezkuntza estetikoak eskaintzen dituen ezagutza zein esperientziak balioztatu, bai gure eguneroko testuingurua aztertzeko eta baita adierazpen kultural zein artistikoak kritikoki balioztatu zein gozatzeko ere.
- Adierazpen artistiko anitzak modu kritikoa eta taldean aztertu, hauek txertatuta dauden testuinguru sozio-kulturala aintzat izanik. Sormen plastikoko prozesu artistikoetan parte hartu teknika zein baliabide sortzaile zein komunikatiboak erabiliz.
- Lantaldean arituz, Lehen Hezkuntzako ikasleen eboluzio une bakoitzari dagozkion garapen mailak zehaztu, eremu grafiko zein plastikoan.
- Musika eta erritmoaren hizkuntzan oinarritutako eta erritmo zelula eta diktaketen aurkikuntzarako talde proiektuak diseinatu, Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion erabilera estrategien bidez.
- Musika eta erritmoaren hizkuntzan oinarritutako eta zelula melodikoen aurkikuntzarako talde proiektuak diseinatu, Lehen Hezkuntzako etapari dagozkion erabilera estrategien bidez.



Garapen Jasangarrirako Helburuen eta Laudato si' Helburuen presentzia ikasgaian



Genero-berdintasuna | Generoen arteko berdintasuna lortzea, eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea (KOG).

- Genero, genero-berdintasun eta generoagatiko diskriminazio kontzeptuak ezagutu, generoarekin lotuta dauden diskriminazioak, indarkeriak eta desberdintasunak hartzen dituzten askotariko formak bezala (esate baterako, nola Artearen Historia gizonezkoek ezarritako istorio bat izan den, non emakumeei arte ikasketak burutzea ukatu zaien; emakumeen artelanak gizonezkoen sinadurarekin plazaratu izan diren edo emakumeen artelanak izateagatik itzalperatuak eta baztertuak izan diren), eta genero-berdintasunik ezaren egungo arrazoiak eta arrazoi historikoak ulertu.
- Genero-berdintasuna eta genero aniztasunaren errealitatea ulertu (Hizkuntza Plastiko eta Bisualak eskaintzen dituen bide estetikoak ezagutu eta bide hezitzaile hauek pertsonen subjektibotasunaren garapenerako daukaten ahalmena ezagutu). Jendarte (gizartea) pertsona ezberdinek osatzen dugula kusi eta aniztasuna (gure irudian, adierazpenetan, formetan...) aberastasuna dela ulertu.



Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestea, berrezartzea eta sustatzea, basoak iraunkortasunez kudeatzea, desertifikazioari aurka egitea eta lurren degradazioa eta biodibertsitate-galera geldiaraztea (KOG).

- Biodibertsitateak dituen askotariko mehatxuez (habitaten galera, baso-soiltzea, zatiketa, gehiegizko ustiapena) eta mehatxu horiek tokiko biodibertsitatearekin lot ditzakeela jabetu (Artearen Historiatik pertsonen eta ingurumenaren harremanak nola joratu diren ikusi: *Land Art*-aren ikuspuntu sentiberak edo antropozentrikoak, artisten esku-hartze estetiko-politikoak ingurumenean, naturarekin erlazioatzen gaituen jarduera plastikoak...), eta nola Heziketa Estetikoaren bitartez kontzientzia ekologikoa garatu daitekela ulertu.



Hiri eta komunitate iraunkorrak | Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, sendoak eta iraunkorrak izatea lortzea (KOG).

- Gizakiaren oinarrizko behar fisiko, sozial eta psikologikoak ulertu, eta bere kokagune fisikoetan (hirian, hiri-ingurunean eta landa guneetan) behar horiek arte munduak nola joratu dituen ikusi, eztabaidarako eta hausnarketarako parada eskainiz. Antolakuntza territoriala sistema iraunkor batekin lotu eta jasotako ondare kulturala errespetatu.

Edukiak

1. UNITATEA - HEZKUNTZA ESTETIKOAREN HELBURU ETA METODOAK

1. Errealitatearen ezagutza sentsiblea eta sentimendu estetikoaren formakuntza.
2. Esperientzia estetikoa, gustua, eta jarrera, jokabide eta ohitura estetikoak.
3. Ikusle gisa eta adierazpen plastikoaren sortzaile gisa, Hezkuntza Estetikoak duen garrantzia eta balioa artea balioztatzeko gaitasuna garatzeko.

2. UNITATEA – ARTEA HIZKUNTZA GISA

1. Ikus-mezuak. Artearen errepresentazio gisa eta adierazpen gisa. Zeinu ikonikoa.
2. Artearen historian Mugimenduak eta tendentzia artistikoak. Zentsura eta kritika.
3. Artelanaren irakurketa eta interpretazioa egiteko ikus/jasotze estrategiak eta irizpideak. Ikus-antolaketa oinarriak. Irakasleak adierazitako artelanaren analisia egiteko ereduak.
4. Ikus-elementuak. Lerroa, kolorea, ehundura, argia. Sortze lanari ezarritako oreka eta tentsioa, proportzioa eta eskala, mugimendua eta erritmoa.

5. Sortze prozesuak. Ikus-mezua, eskema-mihiztadura; orban, enpaste eta lausoduraz baliatuz garapena; prozedura piktorikoak teknika desberdinak erabiliz. Bi zein hiru dimentsioko materialak.

3. UNITATEA – ADIERAZPEN PLASTIKOAREN DIDAKTIKA

1. Etapa aurre-eskematikoa: marrazkien ezaugarriak. Kolorearen esanahia. Espazioaren antolakuntza. Marrazkiak garapenaren adierazgarri.
2. Etapa eskematikoa.
3. Sormen krisia, estereotipoa eta barne eredia. Adibide zehatzak.
4. Ikus-errealismoaren etapa.
5. Gaia eta motibazioa: hautemate eta adierazpenaren arteko harremana. Plastika tailerra. Tailerraren antolakuntza Lehen Hezkuntzan.

4. UNITATEA – MUSIKA MINTZAIRA

1. Zer ulertzen da *Musika Mintzaira* kontzeptuarekin.
2. Zein elementuk osatzen duten.
3. Eguneroko hizkuntzarekin antzekotasunak.

5. UNITATEA – ERRITMOA

1. Definizioa
 - 1.1 Pultsuaren hautematea, identifikazioa eta barneratzea.
 - 1.2 Doinuaren hautematea, identifikazioa eta barneratzea.
2. Oinarrizko unitate metrikoen antzematea: bitarra, hirutarra eta kuartenarioa.
3. Erritmoen aldiberekotasunak dituzten oinarrizko irudi erritmikoen praktika, antzematea eta ezagutza.
4. Oinarrizko formula erritmiko bitar zein hirutarrekin batera, musika mintzairan elkarri eragiten dioten elementuen praktika, antzematea eta ezagutza (puntuua, ligatura, sinkopa, balorazio bereziko taldeak, e.a.).

6. UNITATEA – ELEMENTU ERRITMIKOEN ADIERAZPENA ETA AURKIKUNTZA.

1. Aldez aurretik landutako formula erritmikoen gorputz praktika.
2. Adierazpenaren eragiten dioten termino zein zeinuen antzemate, ezagutza eta interpretazioa.
3. Diktaketa erritmikoen erreprodukzioa.

7. UNITATEA – MELODIA ELEMENTUEN ADIERAZPEN ETA AURKIKUNTZA

1. Lehen eta bigarren lerroko Do klabea, laugarren lerroko Fa klabea eta bereziki bigarren lerroko Sol klabea noten irakurketan praktika.
2. Araututako ariketen sortze zein praktika lana, bertan bigarren lerroko Sol klabea figura eta notak txertatuz.

Ikas-irakaskuntza estrategiak

Estrategia anitzez baliatuko da ikasgai hau:

- Behaketa erreflexiboa egitera bideratutako jarduerak.
- Kontzeptualizaziora bideratutako jarduerak.
- Esperientziaren kontzeptualizazioa sustatzen duten jarduerak.
- Lanketa teorikoa praktikarekin lotzera bideratuta dauden esperimentazio jarduera aktiboak.
- Ebaluazio jarduerak.

Ikasgaiari dagozkion 6 ECTSak aintzat izanik, ikasgaiak ezarrita dituen helburuak lortu ahal izateko eta prozesuaren jarraipen egokia egin ahal izateko 150 orduko dedikazioa izango du. Ordu hauek era honetan banatuko dira:

Ikasgelan lan presentziala: 66 ordu

- Irakaslearen azalpena
- Anlisi artistikoaren planifikazioa
- Dokumentazioaren irakurketa eta analisia
- Musika zein Plastika eremuko baliabideak sortzeko lana
- Auto-ebaluazioa egiteko datu bilketa.
- Azterketa

Ikasgela kanpoko lana: 84 ordu

- Dokumentazioaren irakurketa eta analisia.
- Informazio bilketa
- Instrumentuen elaborazioa
- Musika zein Plastika eremuko baliabideen sortze eta praktika.
- Artelanen analisia
- Ikasketaren prozesua jasotzen duen Egunerokoaren sortze lana.

Ebaluazioa

Ebaluazioa ondorengo irizpideetan oinarrituko da:

- Oinarrizko gaitasunak (%10). Ebaluazio jarraia izango du, Ikasketaren prozesua jasotzen duen Egunerokoaren bitartez.
- Gaitasun espezifikoak (%90). Ebaluazio honetan aintzat izango diren baliabideak: Analogia taula (%15), Zelula erritmikoak (%10), Diktaketa erritmikoak (%5), Zelula melodikoak (%10), Adierazpen plastikoari buruzko ikerketa lana (%4), Artelanaren analisia (%6), Sortze lanen portafolioa (%20), laginen analisisien inguruko ikerketa (%10) eta Unitate Didaktikoaren elaborazioa (%10).

Ikasgaia gainditu ahal izateko 10etik 5eko kalifikazio minimoa beharrezkoa izango da eremu bakoitzean: Ikus-entzunezko eta Plastikaren Hizkuntzaren eremua, alde batetik, eta Musika Mintzairari dagokiona, bestetik.

Adimen artifizialaren erabilera:

Ez dago baimenduta adimen artifizialeko tresnak (AA) edo horien bidez sortutako edukiak erabiltzea. Ezin da lan akademikorik kopiatu, plagiatu edo sortu Adimen Artifizialeko tresna baten bidez. Horrelako iruzurrezko praktikak egitea falta astuntzat hartuko da, Ikasleen Araudiaren 75. artikulua arabera, (Deustuko Unibertsitateko Aldizkari Ofiziala, 81. zk., 2023ko ekaina).

Ez ohiko deialdian ohikoan gainditu ez dituen frogak soilik egin beharko ditu ikasleak.

Dokumentazioa

- AAVV, (2001). La Educación Visual y Plástica hoy. Graó.
- AGIRRE, I. (2000). Teorías y prácticas de la Educación Artística. Ideas para una revisión pragmática de la experiencia estética. Pamplona. Universidad Pública de Navarra.
- ALBELDA, J., SABORIT, J. (1997). La construcción de la naturaleza. Generalitat Valenciana.
- ALCAIDE, Carmen. (2003). Expresión Plástica y Visual para educadores. Madrid. Publicaciones ICCE.
- ARNHEIM, R. (1993) Consideraciones sobre la educación Artística, Paidós, Barcelona.
- ARNHEIM, R.: (1999) Artes y percepción visual, Alianza
- BELVER, M.H., ACASO, M., MERODIO, I., (2005). Arte Infantil y cultura visual/Visual. Madrid. Ediciones Eneida.
- EISNER, Elliot W.(2004). El arte y la creación de la mente. Barcelona. Paidós.
- EISNER, Elliot W.(1995). Educar la visión artística. Barcelona. Paidós.
- FONTAL MERILLAS, Olaia, (2015) Didáctica de las Artes Visuales en la infancia. Ed. Paraninfo
- FONTAL MERILLAS, Olaia, (2015) Educación de las Artes Visuales y Plásticas en Educación Primaria. Ed. Paraninfo.
- GARCIA DEL MORAL, A. (2015). La enseñanza de la Expresión Plástica Infantil en las escuelas de magisterio. Universidad de Sevilla.
- GARNER, H.(1994). Educación artística y desarrollo humano. Barcelona. Paidós Educador
- GUATTARI, Felix. (2000). Las tres ecologías. Pre-textos.
- GÓMEZ, Blanca (coord.). (2010). Ideas que invitan a crear. Valencia. Brief Ediciones S.L..
- HENRY, Michael. (2008). Ver lo invisible. Madrid. Siruela.
- HERNANDEZ, Manuel.(2000). Educación Artística y Arte Infantil. Ed. Fundamentos.
- KELLOG, R. (1979). Análisis de la expresión plástica en preescolar. Cincel. Madrid.
- LOWENFELD, Víctor. (1985). Desarrollo de la capacidad creadora. Buenos aires. Kapeluz.
- MARÍN,VIADDEL, R..(2003). Didáctica de la Educación Artística. Madrid. Pearson Educación.
- MARINA, José Antonio. (2013). El aprendizaje de la creatividad. Barcelona. Editorial Ariel
- MARINA, José Antonio. (2013). Los secretos de la motivación. Barcelona.
- MARTÍNEZ, Luisa y GUTIÉRREZ Rosario. (2002). Las Artes Plásticas y su función en la Escuela. Málaga. Ediciones Aljibe.
- RANCIERE, Jacques. (2011). El destino de las imágenes. Madrid. Editorial Politépicas.
- READ, Herbert. (1977). Educación por el arte. Buenos Aires. Paidós.

ROBINSON, Ken. (2015). Escuelas Creativas. Grijalbo.
RODRIGUEZ, Antonio. (2010). Evolución del dibujo en la infancia. Sevilla. Wanceulen Editorial. S.L.
ROLDAN, Joaquin. (2012). Metodologías Artísticas de Investigación. Málaga. Ediciones Aljibe, S.L.
SAURA, Ángeles. (2011). Innovación educativa con TIC en Educación Artística, Plástica y Visual. Sevilla. Editorial MAD,S.L.
STERN, Arno. (2008). Del dibujo infantil a la semiología de la expresión. Valencia. Carena editors, s.l.
TANIZAKI, Junichiro. (1994). El elogio de la sombra. Madrid. Siruela.
VIRILIO, Paul. (2005). El ciber mundo o la política de lo peor. Cátedra.

ALDIZKARIAK

AAVV (2007): "Viaje por el Arte. Aprendiendo a mirar". Cuadernos de pedagogía, 371.
AAVV (2002): "Educación Artística. Nuevas miradas (Dossier)". Cuadernos de Pedagogía, 312 (47-76).
AGUIRRE, I. (1997): "Adierazpen plastikotik hezkuntza plastikora". Hik Hasi, 22 (38-39).
AGUIRRE, I. (1997): "Marrazki librea benetan librea". Hik hasi, 9 (9-14).
ARAÑO, J. C. (1993): "La nueva educación artística significativa: defendiendo la educación artística en un momento de cambio". Arte, Individuo y sociedad, 5 (11-20).
FREEDMAN, K. (2001): "Enseñando Cultura Visual: Educación artística y la formación de identidad". Boletín de Educación de las Artes Visuales, 15.
HERNÁNDEZ, F. (2001): "Repensar la Educación de las Artes Visuales desde los estudios de Cultura Visual". Boletín de Educación de las Artes Visuales, 15.
HERNÁNDEZ, F. (1995): "El diseño curricular de educación visual y plástica". Revista interuniversitaria de formación del profesorado, 24 (21-37).
HERNÁNDEZ, F., BARRAGAN, J. M. (1991): "La autobiografía en la formación de los profesores de Educación Artística". Arte Individuo y sociedad, 4 (95-102).
WOODLIN, P. (1997): "El museo de arte en el curriculum escolar". Arte individuo y sociedad, 9 (80-88).
ZORNOZA, J. (1996). "Aportaciones desde la plástica a la interpretación del dibujo infantil". Revista interuniversitaria de formación del profesorado, 27 (207-216).

WEB HELBIDEAK

ARTELEKU, Arte eta pentsamendu garaikideko webgunea: <http://www.arteleku.net/>
MUPAI, Museo Pedagógico de Arte Infantil (Madrid): <http://mupai.wordpress.com/>
CALOFRÉ Mora, E. y F. (1993). lenguaje Musical 1 y 2. Barcelona. Boileau.
LOPEZ DE ARENOSA, Encarnación. (1982). Solfeo en canciones. Madrid. Real Musical.
MOLINA, Emilio. (1994). La improvisación musical en el Lenguaje Musical 1, 1ª y 1B. Madrid. Real Musical.
MOLINA, Emilio. (1994). La improvisación musical en el Lenguaje Musical 2, 2A y 2B. Madrid. Real Musical.
ZAMACOIS, J. (1976). Teoría de la música. Libro II. Barcelona. Labor.S.A.
ZAMACOIS, J. (1977). Teoría de la música. Libro II. Barcelona. Labor.S.A.

ZIPILIVAN, Alicia. (1992). Recursos para la educación rítmica en el primer ciclo de la escuela primaria. Madrid. Real Musical.